

2023-ZUAP-00008

Gazteen aisiarako eta elkartzeko gune diren lokalak

Dirulaguntzak gazteen aisiarako eta elkartzeko gune diren lokaletako jardueraren aurretiazko komunikazioa egiteko eta suteak prebenitzeko baldintzak betetzeko

Subvenciones para la realización de la comunicación previa de actividad y cumplimiento de las condiciones de prevención contra incendios, de los locales destinados a espacios de ocio y reunión de jóvenes

GOBERNU BATZARRARI

A LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

2015ean, Donostiako Udalak erabaki zuen gazteek aisialdirako eta biltzeko erabiltzen dituzten lokalen ingurukoak Ordenantza baten bidez arautzea. Ordenantzaren helburua, aisialdiko jarduera berri hau arautzea izan zen, bi alderdi hauek bermatu eta bateragarri egitearren: batetik, gazteek elkartzeko, antolatze eta sozializatzeko duten eskubidea; eta, bestetik, eskubide hori segurtasun, osasungarritasun eta ongizate baldintza egokietan gauzatzea, hala gazteentzat nola jardueraren kokalekua den komunitatearentzat.

En 2015, el Ayuntamiento de San Sebastián decidió regular el tema de los locales destinados a espacio de ocio y reunión de los/las jóvenes, a través de una Ordenanza. El objetivo de la misma fue el de regular esta nueva práctica de ocio, de forma que se garantice y compatibilice, tanto el derecho de las personas jóvenes a reunirse, organizarse y socializarse, como que su desarrollo se efectúe en unas condiciones de seguridad, salubridad y bienestar adecuadas, tanto para ellos y ellas como para la comunidad.

Bertan ezarri zen bezala, sustatzaileak "jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa" aurkeztu behar du.

Dicha Ordenanza establece la obligación de presentar la llamada "comunicación previa de actividad clasificada", por parte de la persona promotora.

Jardueraren aurretiazko komunikazioa formalizatzeak kostu batzuk dakartza. Horregatik, Udalak 2015ean erabaki zuen dirulaguntza lerro bat sortzea gazteen aisiarako eta elkartzeko gune diren lokalak arautzeko Udal Ordenantzako 3. artikuluan ezartzen den aurretiazko komunikazio eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioari lotutako gastuak ordaintzen laguntzeko.

La formalización de la comunicación previa de actividad, conlleva unos costes. Por ello, con el objeto de ayudar a sufragar los gastos derivados de la elaboración de la documentación, que ha de acompañar a la solicitud de comunicación previa prevista en el artículo 3 de la Ordenanza Municipal, reguladora de los locales destinados a espacio de ocio y reunión de los/las jóvenes, el Ayuntamiento apostó en 2015 por crear una línea de subvenciones.

Jarduera horri berriro ekin ondoren, COVID-19 pandemiak eragindako etenaldiaren ondoren, dirulaguntza ildo horrekin jarraitzea proposatzen da 2023an.

Una vez reanudada esta actividad, tras el cese producido por la pandemia COVID-19, se propone continuar con esta línea de subvenciones en 2023.



► Gazteria



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzordea - Idazkaritza
Junta de Gobierno Local - Secretaría

Gainera, dirulaguntza lerro honetan laguntzaren xede bikoitza mantentzen da, suteak prebenitzeko baldintzei loturiko larrialdiko argiak eta ebakuazio seinalizazioaren instalazioa, hauts balioaniztunezko itzalgailuen instalazioa eta suteen aurkako babes baliabideak adierazteko seinaleen instalaziotik eratorritako gastuak ere barneratuz.

Gastu hauek txertatuz, aurretiazko komunikazioa formalizatzeak dakartzan gastuekin laguntzeaz gain, Ordenantzaren 8. artikuluan ezartzen diren irizpideak, suteen aurkako prebentzioari dagozkionak, betetzetik eratorritako gastuak ere diruz lagundu nahi dira.

Dirulaguntzak zuzenean esleituiko dira, gazteek aisialdirako eta biltzeko erabiltzen dituzten esparruak arautzeak duen interes publiko eta soziala dela-eta, eta 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Dirulaguntzenak, 22.2.c) artikuluan ezarritakoan oinarrituta.

Dirulaguntzak emateko prozedura eraginkortasun handiagoz kudeatzeko, beharrezkotzat jo da Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkariaren esku uztea Gobernu Batzarrak dituen ahalmenetako batzuk, halako moduan non, zinegotziak egin ahal izango dituen dirulaguntza hauek kudeatzeko egin beharreko administrazio lan guztiak, itzultzeko prozedura ere barne, hala badagokio.

Gobernu Batzarrak Oinarriak onartu eta gero, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Hori guztia dela-eta, Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkari honek honako erabaki hauek hartzea proposatzen dio Gobernu Batzarrari:

ERABAKIAK

1.- Onartzea gazteek aisialdirako eta biltzeko erabiltzen dituzten lokaletan gauzatu beharreko jardueraren aurretiazko komunikazioa egiteko eta suteak prebenitzeko baldintzak betetzeko 2023ko ekitaldiko Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileak, bai eta Deialdia bera ere.

Además, en esta línea de subvención se mantiene el doble objeto de la ayuda, cubriendo también los gastos derivados de la instalación del alumbrado de emergencia y señalización de evacuación, instalación de extintores e instalación del sistema de detección de incendios correspondientes, relacionados con las condiciones de prevención contra incendios.

Incorporando estos gastos se pretende ayudar, no solamente con los gastos de formalización de la comunicación previa, sino con aquellos gastos derivados del cumplimiento de lo establecido en el artículo 8 de la Ordenanza, relativo a las condiciones de prevención contra incendios.

Las ayudas se otorgarán en régimen de concesión directa en aras del interés público y social derivado de la regularización de los espacios de ocio y reunión para jóvenes y al amparo de lo dispuesto en el artículo 22.2.c) de la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre.

En orden a una mayor eficacia en la gestión del procedimiento subvencional, se estima necesario delegar en la concejala delegada de Igualdad, Solidaridad y Derechos Civiles las facultades de la Junta de Gobierno Local para realizar todas aquellas actuaciones administrativas que requiera la gestión de las presentes subvenciones, incluido, en su caso, el procedimiento de reintegro.

Una vez aprobadas las Bases por la Junta de Gobierno, se procederá a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Por ello, esta concejala delegada de Igualdad, Solidaridad y Derechos Civiles propone a la Junta de Gobierno Local la adopción de los siguientes:

ACUERDOS

1.- Aprobar las Bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones correspondientes al ejercicio 2023, para la realización de la comunicación previa de actividad y cumplimiento de las condiciones de prevención contra incendios, de los locales destinados a



espacios de ocio y reunión de jóvenes.

2.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

2.- Proceder a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3.- Gastua, SEI MILA eurokoa, (6.000,00€) 2023ko Aurrekontuko Gazteria Programako 480.01 kontu-sailari egozte (Gazte lokaletako aurreko komunikazioa gauzatzeko diru-laguntza).

3.- Imputar el gasto de SEIS MIL euros (6.000,00€) con cargo a la partida 480.01 (Ayudas para comunicaciones previas de locales de jóvenes) del Programa de Juventud del Presupuesto 2023.

4.- Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkariaren esku uztea honako dirulaguntza hauen kudeaketak eskatzen dituen administrazio jardura guztiak egiteko ahalmenak, are itzultze prozedura egitekoa ere, hala badagokio.

4.- Delegar en la concejala delegada de Igualdad, Solidaridad y Derechos Civiles las facultades para realizar todas aquellas actuaciones administrativas que requiera la gestión de las presentes subvenciones, incluido, en su caso, el procedimiento de reintegro.

Donostian, sinaduraren egunean

Pilar Ibazeta Quintana

Gazteria, Hezkuntza eta Aterpetxeen Atalaren burua

Imanol Telleria Iturrioz

Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzuaren burua

Ane Oyarbide Ochoa

Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkaria

